



### **Patxi Petirena Alzuguren (Sunbilla, 1963) – Elhuyar.**

Zenbait urtez helduen euskara-irakasle izan zen Eraiki Euskaltegian (Donostia, Gipuzkoa, 1985-1987) eta Bortzirietako Euskaltegian (Bortziriak, Nafarroa, 1992-1997). Ondoren, *Euskaldunon Egunkarian* aritu zen hamarraldi batez (1992-2001), zuzentzaile eta euskara-arduradun. Gero, *Itzulidatz* lantaldearekin idazkuntza- eta itzulpengintza-ikastaroetako irakasle izan zen (2001-2003). Legeak/Leyes proiektuko itzultzaile aritu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (2003-2007), eta Elhuyarreko itzultzaile eta zuzentzaile da 2008tik gaur arte.

Haren argitalpenen artean, honako hauek daude:

- *Egunkariaren* estilo-liburua (elkarlanean) (1992, 1995, 2001).
- [Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak](#) (2011) liburukiaren apailatzailea EIMaren estilo-liburuan.
- Euskaltzaindiaren *Euskara Batuaren Eskuliburuko* (2018) lantaldeko kidea.